

OSALDE
OSASUN ESKUBIDEAREN ALDEKO ELKARTEA

2008KO MEMORIA

AURKIBIDEA

- 1. AURKEZPENA**
- 2. 2009. URTEKO JARDUERA PLANA**
- 3. ZUZENDARITZA BATZORDEA**
- 4. LAN TALDEAK ETA LAN ARLOAK**
 - 4.1. LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETA**
 - 4.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA**
 - 4.3. INGURUMENA ETA OSASUNA**
 - 4.4. EMAKUMEA ETA OSASUNA**
 - 4.5. LAN OSASUNA**
 - 4.6. OSPITALEAK**
- 5. ARGITALPENAK**
- 6. ANTOLAMENDUA ETA FINANTZAK**

AURKEZPENA

2009. urte honetan, gure 25. urteurrena ospatu ostean, hainbat erronka handi izango ditugu. Krisi urtea da, eta hauteskunde urtea Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta aurten, gure elkarteak osasunerako eskubidearen alde egin beharko duen lana are garrantzitsuagoa izango da aurreko urteetan baino.

Urtero elkartearen Urteko Batzarra eginaz batera argitaratzen dugun Memorian, OSALDE osatzen duten lan taldeek 2008an egindako jarduera islatzen da. 2008an, Osasun Eskubiderako Elkarte OPE gisa sortu izanaren 25. urteurrena ospatu genuen.

Lehenengo eta behin, esan behar dugu 2008ko martxoaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari irabazi asmorik gabeko elkarteentzat deitutako laguntzak eskatu genituen, aurreko urteetan bezala, bai argitalpenak egiteko, bai funtzionamendurako, baita XXV. urteurreneko jardunaldiak egiteko: "Osasun eskubidearen defentsa, etengabeko lana".

Uztailaren 29ko EHAAn, onartutako laguntzei buruzko Erabakia argitaratu zen. 2008. urtean, gure elkarteak 600 euroko laguntza jaso zuen, funtzionamendurako, eta ez zuen beste laguntzarik jaso, ez argitalpenerako, ez aipatutako jardunaldiak egiteko.

Laguntza hori aurreko urteetan jasotako laguntzekin bat ez datorrenez, OSALDEko Zuzendaritza Batzordeak uste du laguntzak kentze hori gure elkarteak Osakidetza gatazkan garatutako jarduerarekin lotuta dagoela. Dakizunez, OSALDEk jarrera kritikoak izan zituen gure herriko osasun publikoaren arduradunen kudeaketarekiko, eta, izan ere, gure osasun publikoko goi kargudunen batek garraski "erantzun" zigun, gure ustez neurritz kanpoko deskalifikazio gogorrez.

Bere egunean, deitoratu genuen gure osasun-arduradunek lehen aipatutako bide horretan sakondu izana; hau da, edozein jarrera kritikoei erantzun zakarrak eman izana.

Gure ustez, irabazi asmorik gabeko elkarteentzako laguntzen helburuak laguntzea izan beharko luke; hain zuzen, osasun sistema publikoek zeharkatzen duten egoera konplexuari buruz beste ikuspegi batzuk dituzten kolektiboei laguntzea izan beharko luke. OSALDEren eta antzeko elkarten helburua ez da osasun agintaritzaren ekimenei laguntzea, edo, beste kasu batzuetan, ekimen falta betetzea, betiere, gure ustez, ekimen horiek ez badute osasun zerbitzu publikoa indartzen laguntzen.

Aitzitik, gure iritziz, gurearen moduko jarrera kritikoak onartu beharko lirateke, osasun publikoa indar dezaketean pizgarri gisa.

Osakidetzan gertatutako gatazkan, parte hartze apala izan genuen. Ikuspegi kritikoa genuen eta konponbide mamitsuei heldu beharra proposatu genuen. Izan ere, gatazkaz geroztik, zenbait neurri hartu dira, eskatu genituenen ildotik. Horrez gain, plaza kopurua handitu da zenbait estamentutan, eta osasun inbertsioa handitu egin da. Parece que de alguna manera se ha reconocido que “algo había que hacer y estaba por hacer...”.

Hori guztia dela eta, OSALDEko Zuzendaritza Batzordeak 600 euroko laguntza ematen zigun Erabakiaren aurka gora jotzeko helegitea jartzea erabaki zuen. Gure ustez, gure elkarteari ia diru laguntza guztiak kentze hori salatu beharra zegoen.

Jakina, horrek eragin duen egoera ekonomikoak kezkatu egiten gaitu. Ezin izan dugu argitaratu OP-OSALDEren XXV. Urteurreneko Jardunaldietara joan zirenei agindutako ponentzien koadernoak, eta bazkideei ere eman nahi genien kopia bana. Gainera, Ospitaleen OP-Koadernoak argitalpena airean dago. Argitaratzeko ia prest zegoen.

Iraunkortasun ekonomikoaren batzorde bat sortu dugu, zer aukera izan ditzakegun azter ditzan, baina ez dugu nahi arazo ekonomikoaren gaiari denbora gehiegi ematea; izan ere, gure elkartearen helburuak osasun eskubidea eta osasun publikoaren defentsa dira oraindik ere.

Egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, bazkideen kuotaren premiazko igoera proposatu behar izan dugu; hain zuzen, urteko 60 eurokoa izatea proposatzen dugu, hilean bost euro gehiagokoa, alegia.

Halaber, komeni da bazkide kopurua ere handitzea. Oinarri sendo batek soilik berma dezake jardunbide independentea, gure ahalmen kritikoari eusteko aukera emango diguna. Hori dela kausa eta beste arrazoi batzuk aintzat hartuta, duela 25 urte elkarteak sortu zenetik ez dugu kanpoko finantzaziorik onartzen; hau da, ez dugu laborategien eta abarren dirurik onartzen.

Posta arrunteko bidalketetan egiten genuen gastua ere murriztu behar izan dugu, baina bazkide guztiekin posta elektronikoaren bidez harremanetan egoteko asmoa dugu, ahal dela. Horretarako, ezinbestekoa da oraindik bere e-posta helarazi ez diguna lehenbailehen egitea, bere helbide elektronikotik OSALDEra mezua bidaltzea. Horri esker, aurrerantzean, bazkide guztiek jasoko dute informazioa posta elektronikoz.

2009ko otsailean, laguntzak eskatu ditugu berriro, elkarteak jardunean jarraitzeko, argitalpenak egiteko eta aurten ere prestakuntza jarduerak egiteko.

OSALDEko bazkide guztiak zoriondu behar ditugu, iazko maiatzean egindako XXV. Urteurreneko Jardunaldien arrakastagatik. Horrez gain, aipatu beharra dago iaz aurkeztu genuen “No Gracias” plataformak ere arrakasta handia izan zuela Bilbon eta Donostian.

Laster, bi urte izango dira gure web orria abian jarri genuenetik. Oso ondo funtzionatzen du, horretaz bereziki arduratzen diren pertsonen ahaleginari esker, eta gure posta elektronikora hainbat kolektiboren komunikazioak iristen dira oraindik ere. Hauek dira kolektibo horiek: lankidetzaren arloko GKEak, lanbide elkarteak, talde ekologistak, talde feministak, sindikatuak, komunikabideak, Osasun Publikoaren Aldeko Elkarteen Federazioa, etab.

2008an, "Leganes kasua" delakoaren epaia atera zen. Madrilgo Severo Ochoa Ospitaleko profesionalen aurka egindako salaketak zentzugabeak zirela adierazi zuen epai horrek. Eutanasiari eta heriotza duinerako eskubideari buruzko eztabaida hedatuz joan da, baita haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea eta abortuaren despenalizaziorako eskubidea ere. Horren adierazgarri da Diputatuen Kongresuak duela gutxi Berdintasun Batzordearen proposamena onartu izana. Proposamen horrek emakumeek beren haurdunaldiaz askatasunez erabakitzeko eskubidea ipini zuen mahai gainean, bai eta, besteak beste, arlo horretako kontzientzia eragozpenaren erregulazioa ere.

Alde negatiboan, esan beharra dago osasun zerbitzuan eta beste zerbitzu batzuetan pribatizazioak ez direla gelditu, eta OSALDEk, gainerako gizarte elkarte aurrerakoiekin batera, adi egoten jarraitu beharko du urte berri honetan; izan ere, pribatizazioak, prestazio murrizketak eta osasun aurrekontuen izozketak oso kaltegarriak izango dira osasun beharrik handiena duten kolektiboentzat.

Dakizuenez, 2007. eta 2008. urteetan, Euskadiko osasun zerbitzu publikoan lan egiten dugunok gure haserre sentimendu handia azalerratu genuen. 2009. urte hau, ordea, itxaropentsu hasi da, lehen mailako arreta benetan eta proposamen zehatzekin indartuko delakoan. Beraz, baikorrak izan behar dugu osasun publikoaren etorkizunarekiko, baita oraingo garai zailetan ere.

2009ko martxoa

Presidentea
Mario Fernandez

2009. URTEKO JARDUERA PLANA

Orain, 2009. urterako aurreikusitako jarduera plana aurkeztuko dugu.

Aurten, **BIZITZAREN MEDIKALIZAZIO**ari buruzko prestakuntza eta eztabaida jarduerak egin nahi ditugu. Jarduera horiek urtean zehar egingo dira:

- **Emakumearen osasunaren medikalizazioa.**
- **Arreta Faltaren eta Hiperaktibitatearen Nahastearen medikalizazioa.**
- **Prebentzioaren etika.**

Emakumearen osasuna: “Generoa eta Osasuna” gaiaren inguruan, jardunaldi bat egingo dugu maiatzeko lehen hamabostaldian.

Lehen Mailako Arretari dagokionez, gure jardueran lehentasunezkoa dela uste dugu, eta harekin lotuta, jardunaldi bat egingo dugu urriko lehen hamabostaldian, **“Lehen Mailako Arretaren egungo ereduarekiko alternatibak”** gaiari buruz.

Halaber, **“Osagai aktiboa agintzea”** gaiari buruzko jardunaldi bat ere egingo dugu, baina data zehaztu gabe dago oraindik. Gure iritziz, oinarritzko da alderdi hori gure osasun sisteman indartzea.

Horrez gain, 2009an, **“No Gracias” plataforma Araban** aurkeztuko dugu, Bizkaian eta Gipuzkoan lortutako arrakasta ikusita.

Eta arreta bereziz arduratuko gara 2009. urte honetan gure web orria mantentzen:
www.osalde.org

Osasun arloko nazioarteko lankidetzan ere jardungo dugu aurten. Mitch urakanaren ondoren Hondurasen eta Nikaraguan 10 urtez aritu ostean, Afrikan jardungo dugu. Dagoeneko, lehen harremanak egin ditugu Malin .

Eta **Ospitaleak, Lan Osasuna eta Ingurumena eta Osasuna** arloetan ere lanean jarraituko dugu.

2009. URTEKO ARGITALPEN PLANA

2009an zehar, hauek argitaratu nahi ditugu:

- **Ospitaleen OP Koadernoak**en argitaratu gabeko zenbakia.
- Iaz maiatzean egindako **OP-OSALDEren XXV. Urteurreneko Jardunaldietan** egindako ponentziak.
- **OSALDEren 2008ko memoria.**

Halaber, **Opiniones - Iritziak**en hiru zenbaki argitaratuko dira, gai hauei buruzkoak, hurrenez hurren:

- Lehen Mailako Arretako jardueren desburokratizazioa.
- Generoa eta Osasuna: Emakumeen osasunaren arretaren balantzea.
- Haurdunaldiaren borondatezko etenaldia.

Gainera, **CoOPERación y Salud: sobre nuestra experiencia de diez años de cooperación en Honduras** delakoaren 11. zenbakia argitaratuko dugu.

OSALDEren Zuzendaritza Batzordea

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Mario Fernandez Lopez de Ahumada.

Presidentea

Ingurumena eta Osasuna arloko batzordekidea

Medikua. Osasun publikoari buruzko masterra.

Ingurumenaren osasun arretari buruzko masterra.

Ikuskatzaile medikoa. Ezkerraldeko IM S.

Juan Luis Uria Serrano.

Presidenteordea

Komunikazio arduraduna

Medikua. Prebentzio medikuntzako eta osasun publikoko mediku espezialista. Ikuskatzaile medikoa.

Osasun Planaren S. Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza. Osasun Saila.

Itziar Cabièces Ibarondo.

Idazkaria

Emakumea eta Osasuna arloko batzordekidea

Psikologa klinikoa.

Leioako Osasun Zentroa.

Iñaki Markez Alonso.

Idazkariordea

Medikua. Psikiatriako espezialista.

Basauriko Osasun Mentaleko Zentroa.

Begoña Gutierrez Oteiza.

Diruzaina

Erizaina.

Basaurko Osasun Zentroa.

Arantza Urcelay Salcedo.

Antolamendua eta Argitalpenak

Lan harremanetako graduduna.

Lehen Mailako Arretako Barrualdeko Eskualdeko Pertsonaleko Saila. Osakidetza.

Maite Gonzalez Cortes.

Lehen Mailako Arreta arloko batzordekidea

Administraria.

Matienako Familia Plangintzako Zentroa.

Maite Lopez Torres.

Garapenerako Lankidetzaren arloko batzordekidea

Erizaina.

Amaetxea. Gurutzetako Ospitalea.

Agurtzane Ortego Fernandez de Retana.

Bioetika

Familia medikua, Bioetikako magisterra.

Galdakaoko Osasun Zentroa.

Jorge Barron Fernandez.

Ospitaleak arloko batzordekidea

Medikua. Mikrobiologiako mediku espezialista.

Mikrobiologia Zerbitzuko arduraduna. Gurutzetako Ospitalea.

Jose Maeso.

Lan Osasuna arloko batzordekidea

Medikua.

Ikuskatzaile medikoa.

Ander Retolaza Balsategui.

Osasun Mentala arloko batzordekidea

Medikua. Psikiatriako espezialista.

Basauriko Osasun Mentaleko Zentroa.

LEHEN MAILAKO ARRETAKO LAN TALDEA

Osaldeko LMAko lan taldean, hauek daude: Agurtzane Ortego, Esther Etxegarai, Maite GonzAlez, Pedro Ortueta eta Pedro Valdes. 2008. urtean, Lehen Mailako Arretaren egungo eta etorkizuneko egoerari buruzko azterketan eta eztabaidan sakontzea izan da haien jarduera nagusia.

2007ko gertaera nagusia Osakidetzako lan gatazka izan bazen, 2008koa, berriz, osasun sistema hobetzeko proposamenak izan dira, eta haien artean, bereziki, Lehen Mailako Arretarekin lotutakoak (asistentzia mailen arteko deskoordinazioa, generikoak agintzea eta erabiltzea, desburokratizazioa...).

Urtarrilean, Osaldeko lau kidek (LMAko taldeko bi) ELA sindikatuak antolatutako prestakuntza jardunaldi batean hartu zuten parte. "Lehen Mailako Arreta Osasun Sistema Publikoan" zen gaia, eta Osaldek LMAren zereginarekiko duen jarrera aurkeztu zuten, baita kudeaketa ereduak, LMATen funtzionamendua eta informazio sistemak ere.

Ondoren, maiatzaren 15ean eta 16an, gure elkartearen 25. urteurreneko jardunaldiak egin ziren, "Osasun eskubidearen defentsa, etengabeko lana" lemapean. LMAko taldeak "Lehen Mailako Arretaren oraina eta geroa" gaiari buruzko mahai inguru bat prestatu eta koordinatu zuen. Mahai inguru horretan, beste hizlari batzuekin batera, Pedro Valdesek "LMArako etorkizun estrategia" hitzaldia eman zuen.

Gaiak interes handia sortu zuen, baina ez zen eztabaidatzeko denborarik izan. Hori dela eta, Pedro Valdesek berriro eman zuen hitzaldia, Burtsan.

Bestalde, Osatzen (Gizarteko eta Familiako Medikuntzaren Euskal Elkarte) elkartearekin eta beste lanbide elkarte batzuekin (Lehen Mailako Arretako Pediatriako Euskal Elkarte, Lehen Mailako Arretako Medikuen Batasuna sindikatu, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako medikuen elkargoak) aritu gara elkarlanean, LMAren desburokratizazioaren aldeko kanpainan. Hain zuzen, hobetzeko proposamenak egiten lagundu dugu.

Halaber, Pedro Valdesek txosten bat egin du, gai horri buruz dugun ikuspegia adierazteko. Garrantzitsutzat jotzen ditugun alderdien berri ematen dugu txosten horretan. Txosten hori gure web orritik behera kargatzeko aukera dago. Horrez gain, elkarte sinatzaileen adostasun dokumentuak ere daude web orrian eskuragarri: kanpainaren oinarritzko dokumentua, Osatzenek egina eta sinatzaileek zenbait aldaketarekin adostua; erabiltzaileei informatzeko dokumentua; espezialistei informatzeko dokumentua...

Aldi berean, AP-21 proiektuarekin ("XXI. mendeko Lehen Mailako Arretarako estrategiak") lotutako zenbait dokumenturi buruz eztabaidatu dugu, baita beste autonomia erkidego batzuetan egiten ari diren hobekuntza proiektuei, eta osasun zerbitzuen kudeaketari eta antolamenduari buruz ere.

Halaber, "No Gracias" kanpainan ere hartu dugu parte. Kanpaina horrek eragin handia du Lehen Mailako Arretan. Bilboko aurkezpenean, Nekane Jaiok (Barrualdeko Eskualdeko Lehen Mailako Arretako farmakologoa) eta Jorge Barronek hartu zuten parte.

Nazioarteko Kooperazioa

NIKARAGUA

Nikaraguan hiru urtez lan egin eta lortutako helburuen iraunkortasuna ziurtatu ondoren, Proiektu hau itxi da: “LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETAREN SAREA INDARTZEA, NIKARAGUAKO IPARRALDEKO CHOROTEGA INDIGENA KOMUNITATEAREN BALIO TRADIZIONALAK SUSTATUZ”. Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua.

Lorpenen artean, hauek aipa ditzakegu:

- Osasun arloko 35 sustatzailez osatutako sarea, horien artean OSALDEko boluntarioak. Nikaraguako osasun sistema nazionalari lotutako sarea da, Chorotegako indigenen osasun-arloko beharrianak atenditzeko, prebentzioari lehentasuna emanez.
- Irrati-transmisioko sistema oso bat: 5 irrati tresna eta zentrol mugikor bat, komunitateetako osasun-batzordeek Mozonteko Osasun Zentroarekin eta anbulantziarekin harremanetan egoteko, eta osasun arloko emergentzietan arin mugitu ahal izateko.
- Oinarrizko 23 botikin, proiektuaren komunitateetan instalatuta eta gaitasuna duten langileek kudeatuta.
- Umeentzako elikadura-sistema, oinarrian soja eta hostoen estraktua duena. Hezkuntza Ministerioarekin elkarlanean sortu dute, Mozonteko komunitate indigenen 14 eskolatan.



HONDURAS

10 urteko lana Santa Barbaran. Honduras, emaitzak ikusi egiten dira, emandako gaitasunean eta maila desberdinetan arreta arloan eman den hobekuntzan. Argi dago oraindik ere asko dagoela egiteko. Guk uste dugu kanpo Erakundeok gure esku dagoen guztia egin behar dugula, baina gero “desagertu” egin behar dugula, protagonismo eta erantzukizunak bertako organismoek har ditzaten, mendekotasunik ez egoteko. Horregatik, Santa Barbaratik joan garenean pozik joan gara. OSALDEk 10 urtetan egin duen lana ikus daiteke osasun-sistemaren hainbat hobekuntzatan; komunitate mailan eta erakunde mailan ere, Santa Barbara Integrado Ospitalearekin koordinatuta.

2008an itxitako proiektuak:

- Lehen mailako osasun arretarako klinika mugikorak, II fasea (OINARRIZKO ZERBITZUEN ARRETA EREDUA SISTEMATIZATU ETA SENDOTZEA: TALDE IBILTARIAK).
 - Proiektuaren Gastua guztira: 137.105,00 Euro
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena: 89.700,00 Euro
 - Egungo egoera: Hondurasko osasun publikoko idazkaritzak kudeatuta.



Proiektu honen bidez, 10.400 pertsonari eman zaie osasun arreta, emakumearen arreta osoari lehenetsua emanez.



Proiektuaren beste funtsezko osagarri bat gaixotasunen prebentzioari garrantzia ematea da.



Emakumeenganako arreta osoaz gain, umeenganako arreta ere lehenetsuak izan da, desnutrizio kasuak atzeman eta deribatu ditugu, eta ia %100ean bete dugu umeen txertaketa-kanpaina, egon garen komunitateetan.

Odontologia

- Proiektuaren Gastua guztira: 38.000,00 Euro
- Leioako Udalaren ekarpena: 20.000,00 Euro
- UPV/EHUren ekarpena: 10.400,00 Euro
- Egungo egoera: Unibertsitateen arteko lankidetzarako hitzarmena ebatzi eta sinatzeko zain.

Odontologiako proiektuaren esparruan hainbat jarduera egin dira:

- Medikuntza eta odontologiako fakultateko 4. eta 5. mailako 17 ikaslek praktika solidarioak egin dituzte proiektuaren barruan, eta aho eta hagineta patologia desberdinak eduki dituzten 1.300 heldu artatu dituzte.



- Komunitateetako 25 eskolatan egon dira fluorizazioak egiten, hitzaldiak ematen eta 14 urtetik beherako 3.000 ikasleri prebentziorako materiala banatzen.

- Odontologia arloko elkartruke zientifiko eta akademikoko lehenengo jardunaldiak egin dira, OSALDEK antolatuta, Hondurasko Unibertsitate Autonomikoko (UNAH.VS) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleen artean.





- Intentzio-gutuna sinatu dute, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hondurasko Unibertsitate Nazionalaren artean. Horretarako, José Manuel Aguirre eta Eduardo Estefanía bertaratu dira, elkartruke zientifiko eta akademikorako jardunaldietara.

BESTELAKO JARDUERAK

- Donostiko erizaintza eskolako lau ikaslek parte hartu dute Hondurasen OSALDEren proiektuetan, eta Santa Barbara Integrado Ospitaleko zerbitzuak babestu dituzte, lau hilabetez.
- Hegoa Institutuko Kooperazio Masterreko ikasle batek praktika profesionalak egin ditu bi hilabetez, Santa Barbaran egindako proiektuen esparruan.
- 2008an, OSALDEk lau mintegi antolatu ditu EAEn; landutako gaietako adituek parte hartu dute, eta jende asko bertaratu da.
 1. Gure lankidetzaren estiloa: Sustatzaileak bai, sustatzaileak ez.
 2. Gure nazioarteko lankidetzari buruzko hausnarketak
 3. Nazioarteko lankidetzaren arloko lan metodologia
 4. Afrika: osasun garapen eta politikak

INGURUMENA ETA OSASUNA LAN TALDEA

Taldeko koordinatzailea: Mario Fernandez Medikua. Osasun publikoari buruzko masterra. Ingurumenaren osasun arretari buruzko masterra

Gizartea gero eta kezkatuago dago kutsadura kimikoa dela eta; izan ere, gero eta handiagoa da gure inguruko arrisku kimikoei buruzko ezagutza.

Hain zuzen ere, gure gizartean, ingurumen arrisku ugari daude gure inguruan. Hona hemen arrisku horietako batzuk: industria jarduerak eta zirkulazioak kutsadura atmosferiko handia sortzen dute, bereziki Ezkerraldeko hiri gunetan; hainbat kutsatzaile kimikoren eraginpean gaude, baita etxean ere; eta tabako kontsumoak sortzen duena, besteak bezain garrantzitsua. Halaber, elikagaien bidez, beste kutsatzaile batzuen eraginpean gaude.

Azken hamarkadetan, minbizi kasuak areagotu egin dira gurearen moduko gizarteetan, eta hori oso kezagarria da. 2004ko maiatzean, medikuntzako hainbat pertsona ospetsuk –besteak beste, zenbait Nobel saridunek– Parisko Deia egin zuten, UNESCOren Parisko egoitzatik, ingurumen kutsadurarekin lotutako hainbat gaixotasun (minbizia, asma, ugalkortasun eza...) kasuen kopurua handituz zihoala.

Patologia mota horiek hainbat kausa dituzte, eta askotan, kutsatzaileen metatze efektuaren edo kutsatzaileen eraginpean behin eta berriz egotearen ondorioz gertatzen dira. Horrez gain, denbora luzea igarotzen da kutsatzailearen eragina jasotzen denetik gaixotasuna agertzen den arte; hain zuzen, zenbait hamarkada ere igaro daitezke. Minbizi batek, agertzeko, zenbait inkubazio hamarkada behar ditu. Hori dela eta, oso zaila da kutsatzaile jakin bat eta minbizi jakin bat lotzea.

Mendebaldeko zibilizazioaren jarduera gehienetan, petrolio behar da. Gasolina edo gasolioa behar duten ibilgailu motordunak, itsasontziak eta hegazkinak mugitzeko behar da petrolio, baita hainbat eta hainbat gauzatarako erabil daitezkeen plastikoak egiteko ere. Kontsumo gizarteak energia eta baliabideak xahutzen ditu, eta petrolio gizarte horren oinarrian dago, garraioan, etxean, industrian, etab. Eta petrolio gizarte, ingurumen eta osasun arazo askoren oinarria ere bada. *Prestige* petrolio-ontziaren hondamena, ontzi plastikoak eta askotariko produktuek sortzen dituzten zabor piloak, kutsadura atmosferikoa eta zirkulazioak sortzen duen kutsadura akustikoa petrolioaren erabileraren ondorio dira. Izan ere, Pertsiko Golkoan azken urteetan gertatutako gerrak (Irakeko bi gerrak, eta Irak eta Iran artekoa) munduko boteretsuen petrolio egarri asegaitzarekin lotuta daude. Goseak, hiesak, paludismoak eta tuberkulosiak zigortutako Afrika ahaztuan ere petrolioaren lapurretak eragin handia du. Han, petrolio multinazional handiek (Shell, Chevron...) gatazka larriak izan dituzte petrolioaren ustiapenaren eta lurren kutsaduraren aurka egin duten etniekin. Esaterako, *ogoni* etnia duela 500 urte baino gehiagotik hona bizi izan da Niger ibaiaren bokalean, nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduten, bertan petrolio aurkitu zuten arte.

Petrolioaren industria eta hark sortzen dituen hidrokarburoen eta partikulen eragina oso kezagarriak dira, gero eta kezagarriagoa, osasun publikoan kaltea eragiten dutelako.

Adibidez, Muskizko herriaren eta Petronorren arteko gatazka da osasunerako arriskua izan dezaketen industria jardueren eraginak biztanleen artean sortzen dituen kezken azken adierazgarria; izan ere, Petronorrek bere jarduera handitzeko asmoa du, eta horretarako, petrolioak distilatzean sortzen diren hondakinetatik kokea ekoizteko instalazio bat abiarazi nahi du.

Kutsatzaileen eraginpean dauden lehen biktimak langileak beraiek dira, kontsumitzen ditugun "ondasunak" egiteko prozesuan parte hartzen dutenak. Haiak dira osasunari kalte egin diezaioketen toxikoen eraginpean dauden lehena, nahiz eta askotan horretaz ohartu ez. Amiantoak sortutako minbiziak oso adibide adierazgarria dira.

Dena den, xantaiatzat lanpostuen galera eta enpresen itxiera erabiltzen jarraitzen dute, are gehiago oraintxe egokitu zaigun krisi garaian, eta osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak diren jarduerak ezartzeko aprobetxatzen dute. Eta findegiko langileen eta findegiairen jarduera kokea ekoizteko instalazioen bidez handitzeak osasunerako beste arrisku bat dela ikusten duten biztanleen interesen artean gatazkarik sortuko balitz, beste arazo baten aurrean egongo ginatke: petrolioak "gizarte kutsadura" ere eragiten du.

Enpresek itxieraren eta langabeziaren mehatxua erabili ohi dute, ingurumena eta osasuna babesteko eskakizun logikoei aurre egiteko, horrek itxarondako irabaziak murriztea ekarriko lukeelakoan.

Duela gutxi REACH (produktu kimikoen erregistroa, ebaluazioa eta baimena) onartu zen arte jarraitutako prozedurak ezin hobe adierazten du noraino irits daitekeen industria kimikoak bere irabaziak defendatzeko:

Europar Batasuneko REACH programak milaka produktu kimikoren baimena berraztertzea proposatzen zuen; izan ere, produktu horien hondakinak ingurumenean daude, eta ez da egin produktu horiek kalterik eragiten ez dutela egiaztatze behar adina proba. Hori dela eta, REACH programaren arabera, industriak berak frogatu behar du, merkaturatu baino lehen, substantziak ez direla kaltegarriak, ez osasunerako, ez ingurumenerako. Hau da, orain arte ez bezala egitea proposatzen zen. Izan ere, orain arte, agintari publikoek frogatu behar zuten substantzia kimikoen arriskua, debekatu ahal izateko.

Proiektua izapidetzeko prozesuak zortzi urte baino gehiago iraun du, eta denbora horretan, tirabira handiak izan dira Europar Batasunean. Industriako lobbyek eta Europako zenbait gobernu sekulako presioak eragin zizkieten Europar Batasunari, Alemaniako industria kimikoa buru zutela. Europako industria kimikoa munduko handiena da; hain zuzen, munduko ekoizpenaren %35 du, eta 1,7 milioi zuzeneko lanpostu. Alemaniako aurreko gobernu buru Gerhard Schroederrek, Britainia Handiko Tony Blairrek eta Frantziako presidente Jacques Chirak gutun bat bidali zioten 2003ko irailean Europako Batzordeari, REACHen aurka zituzten planteamenduak azaltzeko; besteak beste, haien ustez, proiektuak kalte egingo zion Europako industria kimikoari, eta haren lehiakortasun ekonomikoari. Ildo horretan, 2003ko apiriletik aurrera, AEBko gobernu ere, Europar Batasunera esportatzen dituen produktu kimikoen kopurua jaitsiko zela ikusita, REACHen aurka azaldu zen, proiektu hori hasierako planteamenduekin onartuz gero.

Margot Wallström Europako Ingurumeneko aurreko komisarioaren hitzetan: "REACH erregelamendua dela kausa europar administrazioak jasan behar izan duen presio politikoa askoz handiagoa izan da Batzordeak 1999tik aurkestutako beste edozein lege proposamenerik izandakoa baino".

2006ko abenduan, Europako Parlamentuak eta Ministro Kontseiluak behin betiko onetsi zuten REACH Erregelamendua. Greenpeacek hau adierazi zuen 2006ko abenduaren 18ko ohar batean: "Produktu kimikoei buruzko erregelamendu berriak (REACH) substantzia kimikoak kudeatzeko esparru egokia sortzen du, baina amore eman du, zenbait arlotan, industriaren aurrean, eta horren ondorioz, osasun publikoa eta ingurumena babesgabe geratu da".

"Amore emateen eta lege hutsuneen ondorioz, REACH erregelamendua ahulduta dago, eta industria kimikoaren interesen menpean geratzen da".

Petrolioak kontsumo gizartea mugiarazten du, eta oso agerikoa da petrolio enpresa handiek (REPSOL, etab.) botere handia dutela. Bestalde, petrolioaren kokea zementua egiteko erabiliko da; izan ere, zementu fabrikak garapen ez-iraunkorraren zirkulua itxiko duten azpiegitura handiak egiteko zementua egiteko lasterketa eroan dabilta: autobide gehiago egingo dituzte, petrolioak kontsumitzen duten ibilgailuetarako. Horrek beroketa globalaren ondorioak areagotu egingo du; asko hitz egiten da horretaz, baina oso gutxi egiten da.

OSASUNAREN ikuspuntutik bada ordua hondamendira garamatzen lasterketa zoro hori zalantzan jartzeko, eta ingurumen osasungarria eta, hots handiko deklarazioetatik harago, garapen benetan iraunkorra izateko eskubidea babeste aldera argi eta lan egiten hasteko.

Jarduerak

2008ko ekainaren 12an eta 19an, hitzaldi bana eman genuen Zorrotzako Auzo Etxean eta Errekaldeko auzoan, gai hau jorratzeko: "HIRI HONDAKIN SOLIDOEN ERRAUSKETA, INGURUMENA ETA OSASUNA".

Hitzaldiak OSALDEko Ingurumen eta Osasun Batzordeak eman zituen, eta Ekologistak Martxan elkartearen antolatu zituen, Zorrotzako, Errekaldeko eta Alonsotegiko auzo elkarteekin batera, ***Hondakinen errausketaren eta Zabalgarbi I proiektuaren aurkako kanpaia*** delakoaren ildoan.

Kanpaina horrek Bizkaiko Foru Aldundiak zaborrak erraustearen alde soilik egiten zuela salatzen zuen; hau da, ingurumenaren ikuspuntutik, tratamendu kutsatzaile baten alde, iraunkorra ez den tratamendu baten alde. Gainera, tratamendu sistema bat besterik ez izatea mendekotasuna sortzen duela ere salatu zen.

Aldundiaren asmoa, beraz, "Zabalgarbi II" proiektuaren bidez Zabalgarbiko zaborrak errausteko gaitasuna handitzea da. Horretarako, errausketa-planta berria eraikiko du, zabor eta konposta murriztu edota minimizatzeko proposamenen ordez.

Era berean, OSALDE gisa agertu gara Euskal Telebistan EITBko "TEKNOPOLIS" programan; hain zuzen ere, "KUTSADURA KIMIKO ETA OSASUNA" izenburupeko saioan, abenduaren 10ean **ETB3n**, eta abenduaren 14an **ETB2** eta **ETB1n**.

Zientzia eta teknologia sustatzea helburu duen programa da Teknopolis; bertan, zientziari buruzko oinarrizko gaiak lantzen dira, arlo zientifiko eta teknologikoak jorratu, eta elkarrizketak egiten zaizkie ikertzaileei. Elhuyar Fundazioak Euskal Telebistarentzat eginiko saioa da, eta honakoan lankidetzat jasotzen du: Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Hezkuntza Kontseilaritza, EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Ingeteam taldea.

EMAKUMEA ETA OSASUNA LANTALDEA

Talde koordinatzailea: Itziar Cabieces. Psikologo Klinikoa. Leioako Osasun Zentroa.

1.- 2008an osasun arloko jarduerak sakondu eta analizatzeko orduan genero-ikuspegia barne hartzeko proposamena aurkeztu genuen. Proposamen hori, halaber, honako gaian gauzatu da: "Generoa eta Laneko Osasuna", eta hori izan da OP/OSALDEren 25. urteurrena ospatzeko Jardunaldietako parte-hartzerik aipagarrienetarikoa.

Sexuaren araberako desberdintasunak eta ondorioak gizon-emakumeen osasunean, laneko ikuspegitik. Lucía Artazcoz izan zen hizlaria, Laneko Osasunean aditua, Bartzelonako Osasun Publikoko Udal Institutuko Zuzendaria, SESOASeko Generoa eta Osasun Batzordeko kidea (erakunde horretako kide da, baita ere, Osaldeko lankide Itziar Larizgoitia)...eta arazo larri hori hobeto ulertu eta gehiago sakontzeko laguntza eman zuten.

Partaidetza, interes eta edukien garrantziari esker, balorazio oso ona lortu zuen, nahiz eta, zoritxarrez, eta Osasun Sailak diru-laguntzen arloan izan dituen murrizketen ondorioz, ezin izan dugun idatziz argitaratu, bertan hala eskatu zitzaigun arren. Hala ere, ikertzaile honen lana Web bidez kontsultatzeko gonbitea egin nahi dizuegu, bai eta pareko beste egile batzuenak ere, gure eskura proposamen erabat garatuak uzten baitizkigute, gure ezagutza-maila areagotu eta ikuspegia zabalduz, Gizon eta Emakumeen osasunari dagokionez.

2.- Interesgarriak dira, baita ere – eta Osasun arloan egindako azterketak gizartearekin partekatze aukera paregabea izan daitezke- bizi izan ditugun zenbait esperientzia. Foro ugarian parte-hartzeko gonbitea egin digute: SARE, NARO, Berdintasunaren aldeko Emakume Elkarateak, Arabako Aldundia, Emakumeak eta Kooperazioa, IPES, Berdintasunerako zenbait eragile, Sumendi,...beraietan hamaika gai jorratu ahal izateko: berdintasunari buruzkoak, emakumeen bizitzaren medikalizazioa, Abortua, Emakumeekin eta Osakidetzarekin lotutako Osasun-programak, emakumeen arazoa...etab. Horregatik, aukera ona izan daiteke aipatu esparru horietakoren batean esperientziaren bat bizi izan duzuen emakumeontzat, parte-hartzeko espazio ugari eskaintzen direlako.

3.- M.Jose Peleteiro gure lankideak egindako lanari esker, batez ere, Osaldek Abortuaren arazoaren inguruko berrikuspen zabala argitaratu zuen. Mugimendu feministek egindako lanetan oinarrituta dago, bai eta "Salud 2000" aldizkarian iaz emandako datuetan ere.

Zentzu horretan, Abortua gaitzat hartuta hiru mahai-ingurutan parte hartzeko Aldundiak egin zigun eskaerari ere erantzuna eman diogu. Mahai-inguru horiek Arabako hiru udalerrri desberdinetan egin ziren, martxoaren 8a dela-eta.

4.- Aurreko urteetan bezala, bitarteko gutxiagorekin, baina Emakumeen aurkako Indarkeriari aurre egiteko konpromiso berarekin, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Prebentziorako diptikoa banatu dugu modu informatizatuan, 2008ko azaroaren 25eko kanpainan.

5.- Urte horretako azken hiruhilekoan, bereziki gure lanean, Osakidetzan alegia, Generoa eta Osasunarekin zerikusia duten dokumentu-bilaketa xume bat egin dugu eta laster helaraziko dizkizuegu, zuzenean nahiz Web bidez.

6.- Gure proposamena da, 2009ko urte honetan, diziplina anitzeko Jardunaldi bat egitea Emakumea eta Osasuna edo Generoa eta Osasunari buruz; interes eta gaurkotasun handia duten gaiak jorratu nahi ditugu, gure osasun-arretaren praktika aztertzen laguntzeko eta hobekuntzak bideratzeko. Horretarako, parte hartzeko gonbidapena egiten dizuegu, zuen iritziak, inpresioak eta iradokizunak partekatzeko, proiektu honetan zein beste edozeinetan.

7.- Batzordea osatzen duten pertsonak gehitzea eta eginkizunak zabaltzea betiko helburua da; beraz, zuen kezkek, esperientziak, gogoetak, kritikak eta alternatibak elkarbanatzera animatzen zaituztegu.

OSPITALETAKO LANTALDEA

Taldearen koordinatzailea: Jorge Barrón. Medikua. Mikrobiologiako zerbitziburua. Gurutzetako Ospitalea

“Dena dario, ezerk ez dirau”, zioen Heraklito Efesokoak, duela 2.300 urte. Baina batzuetan badirudi gauzak ez direla aldatzen behar luketen erritmoan, egoskorrak dira eta beharrezko aldaketari gogor egiten diote, nahiz eta inguruko guztia aldatzen ikusi. Halako zerbait gertatzen da ospitaletan. Gaur egungo ospitalea ez da orain dela hogeita bost urtekoa, horretan ez dago zalantzarik; baina inguruan aldaketa handiak gertatzen diren bitartean, sistemaren egitura-zurruntasunak ez du jokorik ematen egokitzeko. Ospitalea ez doa jendearen premien eta igurikimenen bidetik, batez ere erabiltzaileek eta profesionalak dituztenetik. Ur-lasterren erdian dagoen arroka antzera, eutsi egiten die inguruan azalera irteten diren korrante aldatzaileei. Berandu ibiltzen da eta egokitu ezin kronikoak sortutako tentsioak arintzeko zikloetan jarduten du. Erantzuna berandu dator, desagokia da, ez da nahikoa; nahitaez, fase kritikoetara eramaten gaitu eta hor ez dute balio adabakiek.

Batzuetan, erakundeek ez diete garai bateko paradigmei modu berean erantzuten. Egokitzapen-zailtasunak, zatikako alde heterogeneoen bidez adierazi dira aurrean. Horrela, baina, gatazkaren zati bat baino ez dute erakutsi, zati agerikoena, alegia: langileen poztasunik eza, erabiltzaileen kezak, aditu eta komunikabideen analisi kritikoak. Larritzeko modukoa, beraz, 10 urtetan ikusi ez den batasun sindikala sortu eta, ondorioz, gobernua kolokan jarri delako.

Sektore politiko lehiakorrek ere akats eta gabezia horiek aprobetxatzen dituzte beraien jazarpen-kanpainetan. Hala ere, ez dezagun geure burua engainatu, hori beste kontu bat baita, hau da, egindako kudeaketa ororen aurreko kritikak neutralizatzeko orduan Osasun arloko arduradunek erabili ohi duten argudioa. Beharra duen ospitaleari ez dio onurarik ekartzen Osasun arloko arduradunek eskaintzen dituzten erremedio merkeak; horien bidez, izan ere,aldi baterako konponbideak aurkitu nahi dira: gatazken aurrean irtenbidea aurkitzea hurrengo hauteskundeetara arte irauteko, korporazio-taldeekin bitariko akordioak eginez, sindikatuekin akordio ahulak lortuz, komunikabideetan informazioa neurtuta emanez, diskurtso biribilak botaz, negoziazioetan informazioa ezkutatzuz eta, demokraziaren gainbeheraren adierazgarri argiena litzatekeena, beste garai bateko estategien bidez analisi kritikoari bidea oztopatuz;

esaterako, ospe handiko pertsona nahiz erakundeei izen ona kenduz, argitalpenak itxiz edo diru-laguntzak murriztuz. Dena da balekoa krisia konponduko ez duen politika bati buelta eman baino lehen. Arazoa serioa da, egiturazkoa. **Ospitaleak bidegabeki eskuratzen ditu osasun-baliabide gehientsuenak, Lehen Mailako Arretari dagozkionak bereziki.**

Gizarteak eta osasun sistemak berak estimu handiegitan (nolabait esateko) daukate ospitalea. Horren arrazoia da espezializazio maila altuak, teknologiak, ikerketak eta medikuen prestakuntzak txunditu egiten gaituela. Gutako askok eskatzen dugu Lehen Mailako arretaren mende jartzea, baina arazo handi bat dago: nola libratu **integrazioa eta asistentziaren jarraipen erresolutiboa** eta baliabideen banaketa ekitatiboa **zailtzen duen egotismo patologikotik. Aldaketa iraultzailea behar da osasun arloko zerbitzuen antolakuntzan, ospitalaren eta lehen mailako arretaren hierarkia apurtzeko eta lehen mailako arretaren prozesua indartzeko, hori baita gainerako zerbitzuen jatorria eta elkargunea. Baliabide, antolakuntza-tresna eta teknologia egokiak erabili behar dira. Horrela, mediku, erizain eta gizarte-langileek pazienteen jarraipen soziosanitarioa egin ahal izango dute prozesu**

osoan zehar, prozesu hori konplikatua bada ere. Kontrol erabatekoa eta kalitatea bermatuz.

Hau guztia onartu behar dugu: antolakuntza-eredu hau agortuta dagoela, ez duela inor pozik uzten, ez diela proposatutako hainbat erreformari erantzuten eta hausnarketa serio eta ausarta eskatzen duela. Ez badugu hori onartzen, duela hamarkada batzuk salatu genituen arazo berak izaten jarraituko dugu, urtez urte. Izan ere, *“zientziak aurrera egiten badu, gure borondateari esker da, eta behin ondo funtzionatu zuenak funtzioantzeari uzten badio ez garelako hor gelditzen.”*



2008ko ARGITALPENAK

OSALDE, Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartearen aldizkako argitalpenen bidez, Osasun Publikoari buruzko gaiak eta gure elkartearen baitan dauden lan-taldeen jarduerak jaso nahi ditugu.

OSALDEren egoera ekonomia bazkideen kuoten sostenguari eta organismo ofizialen diru-laguntzei esker mantentzen da (bereziki Eusko Jaurlaritza). Osasun Sailak funtzionamendurako 600 euro soilik onartu zituen 2008rako, eta ez zen diru-laguntzarik eman argitalpenetarako, ezta pasa den maiatzean ospatu ziren XXV. Urteurreneko Jardunaldiak egiteko ere.

Jarraian, zirkunstantzia hauetan gauzatu ditugun zirkunstantziak zerrendatu ditugu:

- “Nuestros primeros diez años” liburua, gure 25. urteurrenarekin bat etorritz.
- Iritziak: “No Gracias”, urrian argitaratuta, Bizkaiko “No Gracias” plataformaren aurkezpenarekin batera.
- OP-OSALDEren XXV. Urteurreneko Jardunaldietako Hitzaldiak: “La defensa del derecho a la salud, una tarea permanente”. Maiatzean argitaratu ziren, Jardunaldiekin bat eginez (zirriborroan), eta bertaratutako guztiei banatu zitzaizkien.

Osalderen argitalpenek 500 aleko tirada daukate, eta osasun arloko eta hortik kanpoko profesionalei zuzenduta daude. Doan banatzen dira Osakidetzaaren sareko osasun zentro eta ospitaletan.

2008ko BALANTZE EKONOMIKOA	
GASTUAK	
Lokalaren alokairua	6.202,10
Telefonoa	939,86
Inprenta	4.178,93
Idazkaritza, posta, bestelakoak	108,75
Itzulpenak (Euskara)	903,00
Publikazioa defizit	4214,00
	16.546,64
Sarrerak	
Aurreko saldoa	2.307,78
Bazkideen kuotak	6.544,33
Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza 2007 % 50	3.000,00
Funtzionamenduagatik Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza 2008 %50	300,00
Kooperazioa idazkaritza	450,00
	12.602,11
GUZTIRA SARRERAK - GASTUAK	-3.944,53

Bilbao 26 de Enero de 2009

Fdo. Begoña Gutierrez Oteiza
Tesorera

AURREKONTUA 2009	
GASTUAK	
Lokalaren alokairua	7.000,00
Telefonoa	1.500,00
Inprenta	5.000,00
Idazkaritza, posta zerbitzua, bestelakoak	750,00
Itzulpenak euskarara	2.000,00
FADSP kuotak	2.000,00
	18.250,00
DIRU-SARRERAK	
Bazkideen kuotak	7.000,00
Funtzionamendurako diru-laguntza. Eusko Jaurlaritza 2007	EZ DAKIGU
Kooperaziorako proiektuen administrazio kostuak	EZ DAKIGU
SARRERAK - GASTUAK	

Bilbo, 2009ko urtarrilaren 26a

Izp. Begoña Gutierrez Oteiza
Diruzaina